

4. DIRU-ITURRIAK

Gure proiektuaren aurrekontu orokorra **300.000 eurokoa** da hasieran. Proiektua, hasiera batean, Espainian abiaraziko da, bereziki **pobrezia handiko eremuetan eta hondamendi naturalek kaltetu dituzten guneetan**. Helburua da bertako biztanleei **etxebizitza ekologiko, merke eta azkar eraikitakoak** eskaintzea, bai giza premien aurrean, bai ingurumena errespetatzeko premian oinarrituta. Horretarako, proiektuaren finantzaketa ez da iturri bakarrean oinarziko, baizik eta **diru-iturri anitz** erabiliko ditugu, arriskuak murrizteko eta jasagarritasuna bermatzeko. Hona hemen iturri nagusiak:

1. Crowdfunding: Verkami

Crowdfunding plataforma baten bidez, herritarren parte-hartzea sustatuko dugu eta komunitatearen babesa lortuko dugu hasieratik. Verkami plataforma aukeratu dugu, Espainian proiektu sozial eta berritzaileetan arrakasta handia duen tresna baita. Kanpaina honek ez digu soilik dirua ekarriko, baizik eta gure marka eta misioa ezagutaraziko ditu lehenengo bezero, babesle eta laguntzaile potentzialen artean. Horri esker, hasierako produkzioa eta prototipoak finantzatzeko kapitala lortu ahal izango dugu, zorpetzea ekidinez eta gizarte-konfiantza handituz.

<https://www.verkami.com/>



2. CDTI (Centro para el Desarrollo Tecnológico y la Innovación)

CDTIren helburua enpresen berrikuntza sustatzea denez, gure adreilu ekologikoen eta eraikuntza-sistema berritzaileak laguntza jaso dezakete. Programak diru-laguntzak eta interes baxuko finantzaketa eskaintzen ditu, eta gure proiektu industrialak ezaugarri teknologiko argiak dituenek, inbertsioaren parte handi bat estaltzeko balioko liguken, gehienez 250.000 € arteko finantzaketa jaso dezakegu eta horrek aurrekontu hautagarriaren %70 inguru estaliko luke. Gainera, CDTIren babesa izateak gure proiektuaren sinesgarritasuna areagotzen du merkatuan eta beste inbertsio publiko edo pribatuak erakartzen laguntzen du.

<https://www.cdti.es/>



3. Enisa (Empresa de Innovación S.A)

ENISAk berrikuntza eta enpresa hazkundera bultzatzen ditu, eta prestamo partizipatiboen bidez hasierako inbertsio handiak finantzatzen laguntzen du, berme pertsonalik eskatu gabe. Horri esker, gure proiektuak ekoizpen-ekipamendua, instalazioak eta merkaturatze-estrategiaren lehen fasea finantzatzeko aukera izango du, 200.000 eta 300.000 euro arteko finantzaketa lortzeko hautagai izango gara, hasierako produkzio- eta hedapen-kostuak estaltzeko. Era berean, ENISAk ebaluatzen du enpresaren potentziala eta gizarte-inpaktua, eta gure kasuan biak nabarmenak dira: ingurumen-berrikuntza eta gizarte beharrezko erantzuna.

<https://www.enisa.es/es/financia-tu-empresa/faqs>



4. EEBBP (Ekosistema Ekintzaile Berritzailea Bultzatzeko Programak),

EOIk (Escuela de Organización Industrial) kudeatutako programa honek proiektu berritzaile eta jasangarriak babesten ditu. Gure adreilu ekologikoak egokiak dira, ingurumenari laguntzen diotelako eta etxebizitza merkeak eta azkarrak eraikitzeko aukera ematen dutelako. Horrez gain, gizarte beharrak asetzeko balio dute, batez ere pobrezia edo hondamendi naturalak dauden lekuetan. Ekosistema Ekintzaile Berritzailea Bultzatzeko Programak, EOIren (Escuela de Organización Industrial,) programa da.

<https://www.eoi.es/es/search?search=es%20impulso%20del%20ecosistema%20emprendedor%20innovador>



Hau guztia kontuan hartuta, eta jakinda gure aurrekontua 150.000 eurokoa dela, lehenengo urtea, edo urte eta erdia, arazorik gabe finantzatu ahal izango dugu. Bigarren urtetik aurrera, gure produktua salduz, administrazio publikoari zein partikularrei saltzen hasiko gara; horrela, diru-sarrera propioak lortuko ditugu eta proiektua modu autonomo eta jasangarrian garatzen jarraitu ahal izango dugu.

Amaitzeko, gure hasierako 150.000 euroko aurrekontua finantzatzeko lau iturri nagusien ponderazioak hurrengoak dira. CDTI erakundeak 50.000 euro emango ditu, hau da, guztizkoaren %33. ENISAk 45.000 euro lagunduko ditu, %30 osatuz. Verkamik 30.000 euro lortzea aurreikusten dugu, aurrekontuaren %20. Azkenik, EEBBP programak 25.000 euro emango ditu, %17 betez. Hurrengo grafikan adierazten da:

